

# ERREGE SANTUEN ESKOLAN

"Uso zuria"

1

Urtarrilak dakarrena,  
"Erregenak" seigarrena.  
Azal-itxurak baztatu eta  
barrukoa ederrena:  
bidera urten eta aurkitu  
gu salbatzen datorrena.

2

Lotan ez dago izarrik,  
egon behar da itzarrik.  
Erregeak lez bizi diranak  
ikusten dabe bakarrik;  
adi bizi ta prest jarraitzeko,  
ez dauke bultza beharrik.

3

Nahizta izarra agertu,  
lotan ezin da ulertu.  
Errege jaunak bila dabilz ta  
bihotzak deutsez suspertu;  
Gaur opari hau hartzen dauanak  
Badau zergaitik eskertu.

4

Bide barrirako libre,  
horra hiru adiskide.  
Arrisku danen gainetik doaz  
gogo beroz bidez bide;  
egin gaizuez bide barrien  
bilaketan partekide.

5

Izarra gordeta ilun,  
mila arrisku edonun.  
Errez nahiz nekez, aurrera beti  
zintzoa hor da ezagun;  
itxaropenez jardun ezkerro,  
laster egingo dau egun.

6

Otoi eginda, jokatu  
eta laguntza eskatu.  
Horra barrero izarra dizdiz  
zeru goian bistaratu;  
Errege jaunak pozaren pozez,  
ez dira alperrik nekatu.

7

Bidea luze, gogorra,  
baina oparia horra:  
Aita ta ama ondoan eta  
askan *mutiko* koxkorra,  
ahuspeztu eta gurtuten dabe,  
aurkitu dabe altxorra.

8

Mila laztan eta opari  
Jainko ume eginari.  
Bihotzak borbor, eskuak zabal,  
pozarren Joxe ta Mari;  
Jesus aurkitu dauan bateri  
ona dario ugari.

9

Agur bildur ta zalantza,  
Belenen a zer mudantza!  
Bide barria hartuta doaz  
bixkor eta ezin kantza;  
banandu daben baino gehiago  
eurak jaso dabe, antza.

10

Urtarrila nahiz otsaila,  
beti *Erregen* dedila.  
Hartu ta emon bizi ezkerro,  
betetzen da *kutxatila*;  
danok *errege* izan gaitez  
nori on egingo bila.

A. Martzel